

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Santi Villareal Barrena

*Amorebieta-
Etxano, Bizkaia
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Etxanoko Ergoien auzoko Zabalbekoa baserrian jaio zen 1935. urtean; gurasoak ere bertakoak zituen: aita bere jaiotetxekoa eta ama ondoko Zabalgoikoakoa. Bi anaia baino ez ziren izan. Gerrak haurra zela harrapatu zuen eta etxekoek alde egin behar izan zuten. Bueltatu ostean, etxea errekitatuta topatu zuten eta Lemoara joan ziren osaba baten etxera; hori dela-eta, dotrina eta eskolak bertan jaso zituen. 11 urte zituela, beraien auzoko Derteano "Dertia" baserria erosi zuen aitak eta bertara joan ziren. Artean, ama hilda zuen, gerratean hil baitzen; ondorioz, etxean emakumerik ez zuten, berak egiten zituen sarritan behar horiek: arropak atondu, jatekoa... Beraien gazte sasoiak jaiak, ospakizunak, ohiturak, hizkuntza-tratamenduak, olgetak, abestiak, neska kontuak, ipuinak... kontatu zizkigun, betiere umoretsu, grabazio honetan.

Zintak

AMO-121

- **Proiektua:** Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-02-22
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

AMO-122

- **Proiektua:** Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-02-22
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxazarra, Ainhoa

AMO-123

- **Proiektua:** Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-02-22
- **Iraupena:** 38 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxazarra, Ainhoa

AMO-160

- **Proiektua:** Amore bi eta ETXANO
- **Elkarrizketatzailea(k):** Polo Gerrikabeitia, Mikel
- **Data:**
- **Iraupena:** 31 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Emalea:** Polo Gerrikabeitia, Mikel

Pasarteak

1. Gerran etxea utzi behar

- **Erref:** AMO-121/002
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:02:53. **Bukatu:** 00:04:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Santiren ama gerra denbora hil zen. Turtziotik Santander aldera joan ziren ebakuatuta eta bueltan ez zieten etxera sartzen utzi eta osaba baten etxean egon ziren. 1944an erosi zuen aitak Derteano "Dertia" baserria. Lemoako eskolara joan zen aitak harrobian lan egiten zuen bitartean bera han egon zelako osabarenean.

2. Guardia Zibila baserria erregistratzen

- **Erref:** AMO-121/003
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:04:18. **Bukatu:** 00:05:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Gerra garaian, baserriko jeneroa (garia, artoa...) herrira entregatu behar izaten zen eta Guardia Zibilak kontrolatzen zuen hori. Umetan beldurra ematen zien guardia zibilek etxea erregistratzen baitzuten eta Santi sabaian ostontzen zen.

3. 10 urtegaz errotara astoz

- **Erref:** AMO-121/004
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:05:22. **Bukatu:** 00:08:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

10 urte zituenerako Okako (Muxika) errotara joaten zen bakarrik. Astoak berak zekien bidea; beraz, ez zegoen galbiderik. "Abastos"ekoak egoten ziren kontrolatzen errotek ehotzen zutena. Behin ilunduta beldurrak jota heldu zen etxera negarrez.

4. San Juanetako erromeria

- **Erref:** AMO-121/005
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:08:27. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

San Juanetan Muxikako "Itsua" soinularia joaten zen Ergoien auzora soinua jotzen. Erromeriatik etxeko beharrak egiten joan behar izaten ziren hurrengo egunean ere joan ahal izateko.

5. San Juanetan bedeinkatutako gurutzeak soloetan

- **Erref:** AMO-121/006
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:10:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

San Juanetan galtzu-eskutak hartu eta suaren inguruan abesten zuten. Erramu egunean saratsarekin egindako gurutzeak bedeinkatzen ziren San Juan egunean soloetan jartzeko.

6. San Juan bezperako kanta

- **Erref:** AMO-121/007
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:10:29. **Bukatu:** 00:12:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

San Juan bezperako su inguruan ume zein helduk abesten zuten kanta abesten du Santik. Hurrengo egunean jatordu berezia prestatzen zuten eta inguruetako jende asko hurreratzen zen.

7. Letanian Bizkargira

- **Erref:** AMO-121/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:12:23. **Bukatu:** 00:14:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Bizkargi mendiko erromeriara joateko letanian joaten ziren lau herri desberdinetatik, ermita lau herriena baita: Gorozikatik (gaur egun Muxika), Muxikatik, Morgatik eta Etxanotik. Etxanok zahagia eroaten zuten. Etxanoko elizaldetik, Autzaganera joaten zen letania eta eurak han batzen ziren.

8. Ikurrina Bizkargi mendian

- **Erref:** AMO-121/009
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:14:13. **Bukatu:** 00:16:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Bizkargi mendiko jai-egunean, erromeria, barkillo-saltzailea eta tabernak egoten ziren. Borrokak ere egoten ziren herri batekoak bestekoen kontra. Behin ikurrina atera zuten bertan, berak ikusi zuen lehen aldia izan zen; guardia zibil asko agertu zen baso artetik egurra banatuz.

9. Bizkargitik Morgaganeko erromeriara

- **Erref:** AMO-121/011
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:18:24. **Bukatu:** 00:20:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Bizkargi egunera Etxanoko herriak zahagia eroaten zuten. Jende asko hurreratzen zen fama handia baitzuen. Handik Morgaganera joaten ziren erromeriara. Auzoko neska-mutilak batera joaten ziren. Bertan bazkaltzeko bazkaria ere eroaren zuten.

10. Mezara derrigorrean

- **Erref:** AMO-121/012

- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:20:21. **Bukatu:** 00:22:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Inguruetakoa erronomia guztietara joaten ahalegintzen ziren; hori bai, betiere meza entzun ostean. Beraien izeko bat oso zorrotza zen horretan eta ezin zuten hutsik egin. Goizeko mezara galtzu eskutek argizatuta joaten ziren. Behin Larreako goiz mezara joan zirenean, goizeko seietako mezara, bidean beldurra pasatu zuten anaiak eta biek.

11. Gurutzeak eta maiatzeko loreak

- **Erref:** AMO-121/014
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:23:56. **Bukatu:** 00:25:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Auzoko emakume batek, Felizianak, gurutzeak egiten zituen. Gurutzerik gurutze erreztatzen zuten, eta bertara ere joaten ziren gurutzeak egitean. Maiatzeko loreak ere egin behar izaten zituzten, zer egiten zuten azaltzen du.</p>

12. Auzokoak domeketan batzen ziren

- **Erref:** AMO-121/019
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:31:45. **Bukatu:** 00:33:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Lehen eskeko asko egoten ziren, horietako bat lagun egin zuten. Auzoan tabernarik ez zenez egoten, domeketan ermita ondoko etxean batzen ziren auzoko denak. Eskeko hori umeak beldurtzen aritzen zen apropos.

13. Patakon Larrabetzuko lapurra

- **Erref:** AMO-121/021
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:33:47. **Bukatu:** 00:35:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Patakon Larrabetzuko lapurra ezaguna zen inguruetan. Hari buruz

entzundakoak, berak ez baitzuen ezagutu, kontaktzen ditu Santik pasarte honetan.

14. Garizumako buldea; Fraideen dozena

- **Erref:** AMO-121/022
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:37:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Garizuma garaia oso gogorra izaten zen, baina buldak ordainduz gero okela jatea libre zen. San Jose eguna barikua izanez gero, ez zen bijiliarik egiten. Bere amama Larrabetzukoa zen eta bertako okindegian egon zen neskame, eta fraideentzako dozena 13koa izaten ei zen. Abadeak gauza guztien ugazaba ei ziren.

15. Abadeari eta medikuari berori

- **Erref:** AMO-121/023
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:37:03. **Bukatu:** 00:38:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Abadeak eta medikuak ugazaba izaten ziren; errespetu handia zor zitzaien berorika berba eginez. Bere aitaren eskola-lagun bat fraide ezaguna izan zen, eta hark berorika ez egiteko eskatu zion gurago baitzuen hika egitea.

16. Hikaren erabilera

- **Erref:** AMO-121/024
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:38:33. **Bukatu:** 00:40:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Beraiek beti erabili dute hitanoa, neska zein mutilekin. Aitagaz, neska-lagunagaz, alabagaz... zuka eta osabagaz, auzokoakaz, lagunakaz... hika.

17. Auzokoak elkarri laguntzen

- **Erref:** AMO-121/027
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:43:10. **Bukatu:** 00:44:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Auzokoek baserriko lanak elkarri laguntzen egiten zituzten. Auzoko batek eskeko bat izan zuten morroi eta haregaz kontuz ibili behar izaten ziren edozer osten zuen-eta.

18. Dirudunek zapatak, beraiek abarkak

- **Erref:** AMO-121/030
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:47:09. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Dirua izan edo ez asko igartzen zen, janzkeran batez ere. Beraiek abarkak janzten zituzten eta besteek zapatak. Euria egiten zuenean ez zen samurra horiekin ibiltzea.

19. Emakume lanak egin behar

- **Erref:** AMO-121/032
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:49:18. **Bukatu:** 00:51:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Beraien etxean ez zegoen emakumezkorik, ama umea zela hil baitzen; ondorioz, denetariko lanak egin behar zituen: arropak garbitu, lisatu, josi...

20. Baserritik kalerako joera; bizikleta

- **Erref:** AMO-121/034
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:51:23. **Bukatu:** 00:53:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Aita oso ibiltuna zen, domekero joaten zen Zornotzara, bazkaldu eta karta-jokoan aritzen zen. Beti izan dute kalerako joera nahiz eta urrun egon. Mutiko gehienek zuten bizikleta; andrazkoek, osterara, ez. Oinez joateko bide luzea dago.

21. Gernikako erromeria baserri girokoa

- **Erref:** AMO-121/035
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:53:38. **Bukatu:** 00:55:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Gernikako erromeriara joateko Autzaganen hartzen zuten autobusa eta gero etxerako taxia. Gernika aldean baserrietako jende gehiago egoten zen eta gurago zuten hangoa Zornotzakoa baino. Zornotzan "kategoriakoak" aparte egoten ziren. Zugastietan tren hartu eta Gernikako plazan saltzen zituzten oilaskoak eta untxiak. Zugastietako erromeria ere ezaguna zen.

22. Dantza egiteko ordaindu behar

- **Erref:** AMO-121/036
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:55:28. **Bukatu:** 00:56:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Dantzan egiteko ordaindu egin behar izaten zuten leku batzuetan. Bizkargin hiru korru egoten ziren eta bakoitzean pezeta bat kobratzen zuten eta txarto pasatzen zuten; ondorioz, liskarrak ere sortzen ziren.

23. Bizkargin hiru eguneko ospakizuna

- **Erref:** AMO-121/037
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:56:54. **Bukatu:** 00:58:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Bizkargi mendiko ospakizuna hiru egunetako izaten zen: Santa Kurtze aurreko domeka, Santa Kurtze eguna bera eta osteko domeka. Bertan egoten ziren tabernetara andreak ez ziren joaten.

24. Baso-erromerietan kalabazarik ez

- **Erref:** AMO-121/039
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:59:12. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Santik gaztetan kalabaza gehien Galdakaon jaso zuen, Bilbo aldeko jende asko egoten zen bertan. Gernika aldean, ostera, gustura egoten ziren. Baso-erromerietan ez zuten ezezkorik jasotzen eta gustura joaten ziren. Zornotzan "¿Bailamos?" esan behar izaten zen, erdaraz.

25. Erromerietan nesken eta mutilen arteko hartu-emana

- **Erref:** AMO-122/002
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:02:39. **Bukatu:** 00:04:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Dena zen bekatu. Neskek, esaterako, eskua jartzen zuten mutilak gehiegi ez hurbiltzeko dantza egiten zutenean. Erromerietan edukitzen zuten orduan hartu-emana neskek eta mutilek. Leku guztietako dantzaldietara joaten ziren: Lezamara eta Gernika aldera, esaterako. Zornotzako erromerietara, ostera, Arratia guztia joaten zen.

26. Garizuman Larrabetzuko eta Muxikako txakolinetara

- **Erref:** AMO-122/004
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:06:49. **Bukatu:** 00:08:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Garizuman Larrabetzuko txakolinera joaten ziren eta baita Muxikako Errekazabale txakolinera ere. Gizonak baino ez ziren joaten bertara, emakumeak paseoan ibiltzen ziren eta.

27. Atsoak inauteri jantzita

- **Erref:** AMO-122/006
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:09:18. **Bukatu:** 00:09:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Inauterietan ez zuten ezer egiten. Santi umea zenean, orduko atsoak ibiltzen ziren inauteri jantzita. Gizonak ez ziren inauteri jantzten, emakumeen kontua zen.

28. Inauterietan azken erromeriak, tostadak eta txerri janak

- **Erref:** AMO-122/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:11:31. **Bukatu:** 00:13:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Inauteri domeka erromeriara joateko eguna izaten zen. Zornotzan martitzenean ere egiten zuten erromeria. Hauek izaten ziren garizuma aurreko azken dantzaldiak. Inauterietan tostadak prestatzeko ohitura egon da. Txerri hankak eta belarriak ere orduantxe jaten ziren.

29. Basomartxo, Eguen zuri eta Santa Ageda

- **Erref:** AMO-122/009
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:13:16. **Bukatu:** 00:14:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Inauteri aurreko domekan txitxi-burruntzia egiten zuten, Basomartxo. Eguen Zuri ere egiten zuten. Santa Ageda abesten irteten ziren mutikoak eta gero batutako txerrikiak erreta jaten zituzten basoan.

30. Erregenetako eta Urtebarriko kantak

- **Erref:** AMO-122/011
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:16:06. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:

Erregenetan "Erregen erregen, kinbilintañe..." kantatzen zuten. Orduan ere zeozertxo ematen zieten etxeetan. Lehenagokoak Urtebarri egunean ere irteten ziren etxerik etxe abestera: "Urtebarri barri, txarri belarri..."

31. "Errabi" eta "aratoste"

- **Erref:** AMO-122/012
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:18:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:

<p>Inaureti jantzen zenari "errabi" esaten zioten, "errabi jantzi". Tostadak jateko egunari, osterara, aratuste, "aratoste", esaten zioten. Kandelaria egunean ere tostadak jaten zituzten eta kandelak eta janak elizan bedeinkatu.</p>

32. San Blaseko kordoia eztulik ez edukitzeko

- **Erref:** AMO-122/013
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:18:41. **Bukatu:** 00:20:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Blas

Laburpena:

San Blaseko kordoia bedeinkatu egiten zuten eta Ave Mariak errezatzen zizkioten eztulik ez edukitzeko. Amamak laranjak ere erosten zituen bedeinkatzeko.

33. Errespetu handia osaba pasionistari

- **Erref:** AMO-122/014
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:20:07. **Bukatu:** 00:21:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Osaba pasionistari errespetu handia zioten. Etxera etortzen zenean muin egiten zioten eskuan, baita bere amak ere. Aparteko kopa bat jartzen zioten mahaian, Jainkoaren ordezkoa zela eta.

34. Aparteko jatekoa Gabonetan eta domeketan

- **Erref:** AMO-122/015
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:21:31. **Bukatu:** 00:22:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Gabonetan ardoa edukitzen zuten eta jateko bereziak: olio-aza, bakailaoa bizkaitar erara edo artxoa. Domeketan ere aparteko zeozer jaten zuten. Astegunetan, osterara, beti prestatzen zuten baba-lapikoa eta gauetan porru-salda.

35. Gabonetan ogia bedeinkatu

- **Erref:** AMO-122/016
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:22:51. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabonetan, gurutzea egiten zioten ogiari, hasi barik zegoela, musua eman eta kuskurra godetzen zuten. Gaixorik zegoenari untzioa emateko izaten zen ogi kuzkur hori. Horrelako sineskera asko zegoen lehen.

36. Larreako fraideen Garizumako sermoi gogorrak

- **Erref:** AMO-122/018
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:28:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

Garizuman misioak egiten zituzten Larreako fraideek. Herritarrak ikaratu egiten zituzten euren sermoietako ifernu kontuekin. Larrean fraide asko zegoen orduan, baita gipuzkoarrak ere. Sarritan ikusten zituzten fraide nobizioak goizean goiz, kandelak eskuetan zituztela, errezatzen. Gauerdian ere altxatzen ziren errezuak egitera.

37. Ardoa gutxi baina tabakorri asko

- **Erref:** AMO-122/022
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:32:05. **Bukatu:** 00:34:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Santik hamabost bat urte zituela hasi ziren etxean egunero ardo apur bat edaten. Kantara erdiko garrafoiarekin bialtzen zuten Zornotzara ardoa ekartzera. Tabakorria, ostera, zenbat-gura egoten zen orduan. Estankoan erosten zuten, baina gerra ostean errazionamenduan egon zen eta estraperloan erosi behar izaten zuten.

38. Ogia eta "labaigarra" etxeko labean

- **Erref:** AMO-122/023
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:34:07. **Bukatu:** 00:36:06

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserríko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Egun birik bat ogia saltzen etortzen ziren auzora. Astoz ekartzen zuten. Lehenago, etxeko labean egiten zuten ogia eta baita artoa ihartu ere, "labaigarra". Uruna zorroetan ekartzen zuten errotatik eta gero kaxetan gordetzen zuten urte guztirako.</p>

39. Txitxarroak erosten zituzten plazan

- **Erref:** AMO-122/024
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:36:06. **Bukatu:** 00:38:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Auzoetara ez zen arrain saltzailerik joaten, plazan erosi behar izaten zieten bermeotarrei. Txitxarroa erosten zuten orduan, merkea zen eta. Etxeko jeneroekin konpontzen ziren: untxiak, arrautzak... Hala ere, arrautza gutxi jaten zuten, saldu egiten zituzten eta. Ez zuten trukerik egiten.

40. Arropak garbitzea, "bogadia egin"

- **Erref:** AMO-122/026
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:39:07. **Bukatu:** 00:42:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Santi ere ibili izan da arropak garbitzen: Chinborekin balde zabalean, "zine", garbitu eta gero Solagureneko iturrian jaboia kentzen zioten. Izarak hamabostean behin garbitzen zituzten. Satiren aurrekoek bokata egiten zuten, "bogadia": arropak jaboiarekin garbitu eta gero surtako hautsarekin zuritu.

41. Errekara bainua hartzen eta karramarrotan

- **Erref:** AMO-122/030
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:46:52. **Bukatu:** 00:50:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Mutiko berdingoak erre kara joaten ziren, inguruko putzuetara. Sarritan, frutak ere lapurtzen zituzten putzu inguruetan. Biluzik bainatzen ziren, baina urak hotzak izaten ziren. Karramarro asko zegoen orduan eta etxean jateko harrapatzen zituzten.

42. Tiragomak eta goitibeherak

- **Erref:** AMO-122/031
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:50:46. **Bukatu:** 00:53:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Etxean egiten zituzten tiragomak eta goitibeherak. Behin, kolpe itzela hartu zuen lehengusuak goitibeheran zihoala. Txori-txiki en atzetik ibiltzen ziren tiragomarekin: txindorrak eta elaiak, "elareak". Baina bekatua ei zen elaei tiratzea. Fruta lapurretan ere ibiltzen ziren orduan mutikoak.

43. Jolasak: txapak, "kastorrien", futbola eta osten-ostenka

- **Erref:** AMO-122/032
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:53:14. **Bukatu:** 00:55:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Txapara edo "kastorrien" jolasten zuten orduan. Azken jolas honen helburua mugatutako eremutik ahalik eta intxaur gehien ateratzea zen. Lemoan futbole an egiten zuten gehiago eta baita osten-ostenka ere.

44. Eskola gutxi zeukaten lehen

- **Erref:** AMO-122/034
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:57:00. **Bukatu:** 00:59:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Anaia eta bera ez ziren ondo konpontzen erdaraz. Zatiketak egiten hasi zirenean utzi zuen eskola Santik, hamaika urte zituela. Beti nabaritu izan du eskola falta, nahiz eta zekienarekin ondo konpondu izan.

45. Aitita Etxanoko idazkari

- **Erref:** AMO-123/001
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:36

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Etxanoko eskolara joan zen umetan eta bere aita, aitita, Etxanoko idazkaria izan zen. Madrilen egon ei zen morroi eta bertan erdaraz ikasi zuelako jarri ei zuten Etxanon idazkari. Hilean pezeta bat irabazten zuen erretiratu zenean. Aitak soldadu joan behar izan zuen aititak pentsioa galdu ez zezan.

46. Kontakizuna: abadea, sakristaua eta bildotsa

- **Erref:** AMO-123/003
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:03:47. **Bukatu:** 00:06:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gorozikako abadeak sakristaua bidali ei zuen basora bildots baten bila. Sakristaua agertu ez eta abadea meza esaten hasi zen. Bat-batean sakristaua mezara sartu eta meza erdian zeudela abadea eta sakristaua bata besteari kantatzen hasi ziren. Zaharrei entzundako kontakizuna dau hau.

47. "Obabatxue lo ta lo"

- **Erref:** AMO-123/005
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

Umeak lokartzeko horrela kantatzen zuten: "Obabatxue lo ta lo, zeuk orain eta neuk gero, zeuk gure dozun orduen baten bixok egingu lo ta lo. Beste batzuk hasieran "Obabatxue lo egidazu" kantatzen dute.

48. Enbeitaren bertsoa

- **Erref:** AMO-123/006
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:11:48. **Bukatu:** 00:13:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Enbeitaren bertsoak kantatzen ditu Santik: "Natusalen baiñago zaharrago dan behixe, trabes ipintzen deustak gaur neuri begixe..."

49. Izeko etxean bakarrik gerra sasoi

- **Erref:** AMO-123/008
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:23:12. **Bukatu:** 00:26:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Bakarrik gelditu zen izeko gerra sasoi, auzoan ere bakarrik. Behin, milizianoz bete zitzaion etxea, baina berak berdin-berdin egin zuen lo etxean. Hurrengo egunean, Etxanotik etxera zihoala, soldaduek hartu egin zuten eta arerioa zela pentsatu zuten boltsiloan 'Chocolates Bilbainos' zeramalako. Frontea egon zen sasoi horretan Etxano inguruan.

50. Bala-zorroak batu eta saldu

- **Erref:** AMO-123/010
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:28:56. **Bukatu:** 00:32:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Behin, obus bat lehertu zitzaion mutiko bati eta eskua galdu zuen. Orduan, mutikoak goiko haitzetara joaten ziren bala-zorroak, "kaskilluek", batzen gero saltzeko. Behin, Joxeperen tabernan hartu zuten askaria bala-zorroak saltzen irabazi zuten diruarekin.

51. Hildakoak Etxanora eramateko andabidea

- **Erref:** AMO-123/011
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:32:07. **Bukatu:** 00:34:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

Auzoan baten bat hiltzen zenean, Etxanora eramaten behar izaten zuten gorpua. Andabidea zegoen horretarako eta andariak izaten ziren gorpua lepoan eramaten zutenak. Bidea egin zutenean, aldatu egin zen andabidea.

52. "Errogixe"

- **Erref:** AMO-123/012
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:34:42. **Bukatu:** 00:35:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

Etxeko baten bat hiltzen zenean, domeka guztietan joan behar izaten zuten sepulturagaz Etxanora. Hildakoa kanposantura eramaten zutenean, emakume bat joaten zen aurretik ogiagaz. "Errogixe" esaten zioten.

53. Garia eta artoa udaletxera

- **Erref:** AMO-160/009
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:10:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerrako oroitzapenik ez dauka. Gerra ostean, garia eta artoa eraman behar izaten zituzten udaletxera.

54. Guardia zibilen beldur

- **Erref:** AMO-160/010
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:10:48. **Bukatu:** 00:12:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Gerra ostean, guardia zibilak agertzen zirenean, sabaian ezkututzen zen. Bizkargiko erromerietan ere tirabirak izaten zituzten guardia zibilekin; borrokak izaten ziren han.

55. Uda partean, bakailaoa erreta

- **Erref:** AMO-160/015
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:17:29. **Bukatu:** 00:18:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Uda partean, bakailaoa erreta jaten zuten. Taloa eta esnea jatordu guztietan hartzen zuten, betetzeko. Bazkalorduan babak jaten zituzten.

56. 1954 urteko lehortea

- **Erref:** AMO-160/017
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:19:33. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Ezagutu duen lehorterik handiena 1954 urtean gertatu zen. Abereekin gaizki ibili ziren. San Jose egunean elurra egin zuen eta hamabost egunez ez zuen kendu. Gero, euririk egin gabe eman zituen egun asko. Goserik ez du pasatu.

57. Hildakoa bizkarrean eraman behar

- **Erref:** AMO-160/022
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:28:57. **Bukatu:** 00:30:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

Norbait hiltzen bazen, bizkarrean eramaten zuten hilotza. Gogorra izaten zela dio. Domeka guztietan mezara joan behar izaten zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com